



Arartekoaren ebazpena, ekainaren 6koa. Horren bidez, Sestaoko Udalari gomendatzen zaio familia bat udal erroldan ofizioz bajaran ematen duen ebazpena bertan behera utz dezala, familia udal erroldan mantendu dezala eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailari jakinarazi diezaiola familia horrek erroldaren baldintza betetzen duela, esleitu dioten babes ofizialeko etxebizitza berehala eman diezaioten.

Aurrekariak

1. Pertsona bat Arartekora zuzendu zen Sestaoko Udalak 2008ko azaroaren 1ean udal erroldan baja ematea erabaki zuelako. Familia horri 2010ean babes ofizialeko alokairuko etxebizitza bat esleitu zioten 2010eko urtarrilaren 27ko Bizkaiko Etxebizitzaren Lurralde ordezkariaren ebazpenaren bidez. Etxebizitza ez zioten eman Sestaoko Udalak Etxebizitzaren Lurralde Ordezkaritzari erroldaren baldintza betetzen ez zuela adierazi ziolako.
2. 2010eko ekainaren 1ean Sestaoko Udalak jakinarazi zion udal erroldaren bajaren ondorioak, 566/2010 dekretu bidez 2010eko maiatzaren 5ean hasitakoak, 2008ko azaroaren 1ean adieraztea erabaki zuela, horixe baitzen irregulartasun egoera antzeman zen lehenengo data.

Aurreko ebazpenean adierazi zenez, erroldan baja emateko espedientearen izapideak 2010eko maiatzaren 5ean hasi ziren. Halaber, 2010eko maiatzaren 28an, ebazpenaren egun berean, alkateak salaketa jarri zuen ustezko maula delituagatik eta agiri-faltsutze delituagatik, errentamendu-kontratu bat ustez faltsifikatu izanagatik 2007. urtean Sestaon erroldatzea lortze aldera eta horrela, udal eta autonomia laguntzak irregularki eskuratze aldera, ... Sailak (ez da sailaren izena adierazi) jarraitutako jardueren bidez jakin izan denaren arabera.

Arartekoak ondorengo gertakarien inguruko informazioa eskatu zuen:

- a) (...)ren erroldako bajaren espedientearen kopia eta bereziki, interesdunari egindako entzunaldiaren eta Erroldatze Batzordearen aldeko txostenaren kopiak, Toki Erakundeetako Biztanleriaren eta Lurralde Mugapenaren Araudiko 74. artikulua babesean.
- b) Baja atzeraeraginezko ondorioekin emateko izan diren arrazoiak eta erabaki horren legezko oinarria.
- c) (...) S.M. bizikidetzaren unitatearen gizarte txostena. Bertan, familiarekin 2008tik 2010era bideratutako jarduerak aipatuko dira.



3. Sestaoko Udalak Arartekoaren informazio eskaerari erantzun zionez, pertsona horrek irregulartasunak eta iruzurra burutu zituen Sestaon erroldatuta egotea lortzeko eta horrela udalerrian modu irregularrean etxebizitza bat eduki ahal izateko. Era berean, udalerrian berriro ezartzeko eskubidea izateko beharrezkoak diren arrazoiak, baldintzak eta antzinasuna ezartzen dituen Plan Zuzentzailea, erakunde guztiak sinatuta, aipatu zuen, *"aspecto éste que tiene que ser cumplido estrictamente, dado el esfuerzo de revitalización y modernización de viviendas que está llevando a cabo el Municipio de Sestao, con más de 20 edificios derribados y 7 en proceso de rehabilitación"*.

Gainera, 2011ko otsailaren 23an Bizkaiko Lurralde Sailaren Erroldatze Batzordearen Buruari bidalitako idazkia erantsi zuen. Bertan, 2010eko ekainaren 30eko Erroldatze Batzordeak erroldatik ateratzeko erabakiaren aurkako txostenari alegazioak aurkeztu zizkion.

4. Arartekoak berriro ere informazioa eskatu zuen aurretik eskatutako agiriak bidali ez zizkiotelako, hala nola, Erroldatze Batzordearen txostena.

Sestaoko Udalak aurreko agiriak bidali zituen, zehazki: 2010eko maiatzaren 21eko BAOren kopia, erroldatze bajaren espedientean alegazioak aurkezteko 15 eguneko epea eskainiz, baja ebazpenagatik emandako jakinarazpen pertsonalaren kopia, Erroldatze Batzordeak emandako txostenaren kopia eta 2008-2010 urteetan zehar gizarte langileak izandako esku-hartzea biltzen zuen txostena.

5. Udalaren gizarte txostenean adierazten denez, familia horrek 2007ko ekainaz geroztik jaso du Sestaoko Udalaren Gizarte Zerbitzuen laguntza, Barakaldotik mugitu zirenetik. Hala eta guztiz ere, Sestaoko Vista Alegre hezkuntza zentroko informazioaren arabera, semea 2002. urteaz geroztik egon da matrikulatuta bertan, eta gainontzeko 3 seme-alabak erregulartasunez doaz hezkuntza zentrorra. Era berean, aita zentroko ikasle izan zela jakinarazi ziguten. Gizarte zerbitzuen txostenean biltzen denari jarraiki, 2011. urtean zehar 4 adingabeen eskola jarraipena burutu dute Vista Alegre hezkuntza zentroarekin izandako bileretan.

Familia horrek Sestao Berriren esku-hartze eta babes soziala behar izan du, baita udaleko gizarte zerbitzuena ere. 2009ko udazkenean bide judizialek etxetik atera behar izan zituzten eta Sestan zuten etxea utzi behar izan zuten. Harez geroztik Sestaon dituzten senide batzuen etxean bizi dira, 2011ko otsailaren 15eko polizia buruak Sestaoko Udaleko presidente alkateari zuzendutako diligentiaren arabera aurri egoeran aitortuta dauden etxebizitzetan, eta furgoneta batean. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek 2010eko abuztuan diru-sarrerak bermatzeko errenta eteteko proposamena egin zuten.





Bizkaiko Foru Aldundiak diru-sarrerak bermatzeko errenta eten zuen 2010eko urritik aurrera.

6. Amak, 2010eko otsailaren 2an(...) udalean idazki bat aurkeztu zuen Sestaoko Udalak bera eta bere familia gizarte zerbitzuen helbidean edo Vista Alegre CEPean sar zezan. Idazkiak azaltzen duenez, seme-alabak Sestaoko senide baten etxean bizi dira, eta bera eta senarra kalean lo egiten dute, Sestaon, furgoneta batean. Gainera, azpimarratu duenez, 10 urte inguru daramatza Sestaon Bizitzen eta udaleko gizarte zerbitzuekin harremana dauka.

Gogoetak

1. Uztailaren 11ko 1696/1986 Errege Dekretuaren bitartez onartutako Toki Erakundeen Biztanleria eta Lurralde Mugaketari buruzko Araudiak udalek ofiziozko baja eman ahal izateko jarraitu behar duten prozedura ezartzen du. Horretarako, 72. artikuluekin bat eginez, espediente bati hasiera eman beharko zaio eta interesdunari entzunaldi izapidea egingo zaio. Interesdunak ez badu berariaz adierazten bajarekin ados dagoela, baja Erroldatze Kontseiluaren aldeko txostenarekin bakarrik gauzatu ahal izango da, uztailaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretuaren 72. artikulua:

“Los Ayuntamientos darán de baja de oficio, por inscripción indebida, a quienes figuren empadronados incumpliendo los requisitos establecidos en el artículo 54 de este Reglamento, una vez comprobada esta circunstancia en el correspondiente expediente en el que se dará audiencia al interesado. Éste deberá comunicar el municipio o país en el que vive habitualmente y solicitar, por escrito, el alta en el padrón municipal o en el Registro de Matrícula de la Oficina o Sección consular correspondiente. Dicha solicitud será tramitada por el Ayuntamiento que acuerde baja de oficio.

Si el interesado no manifiesta expresamente su conformidad con la baja, ésta sólo podrá llevarse a cabo con el informe favorable del Consejo de Empadronamiento”

2010eko maiatzaren 28an Sestaoko Udalak erroldan baja ematea ebatzi zuen, atzeraeginezko ondorioekin, 2008ko azaroaren 1era arte. Ebazpen horretan ez zen Erroldatze Kontseiluaren txostena aipatu. 2010eko ekainaren 30ean Erroldatze Kontseiluak Sestaoko Udalarari derrigorrezko txostena jakinarazi zion, erroldan baja ematearen aldekoa ez zena.

2. Udaleko erroldan baja emateko prozedurak zenbait izapide barne hartu behar ditu. Horien artean eragindako pertsonari jakinarazi behar zaion etxebizitza



egiaztatzeko espedientea dago; izan ere, horrek interesdunaren eskubideari dagokionez, eragozpenak eragin ditzake, beraz, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko legearen (AJAPEL) 58. artikulua betez, berariaz jakinarazi behar da.

Inguruabar hori egiaztatzea eta jakinarazpena egitea ezinezkoa bada, egindako ikuskapen bisitetan ez delako etxebizitzan egon, orduan AJAPELen 59. artikuluan ezarritako moduan egiaztatu beharko litzateke.

Ikuskapen aktak egiaztatzen badu ez dela bertan bizi edo ikuskapen akta egitea ezinezkoa izan dela adierazi bada legezko abisuen bitartez, espedientearen izapidetzeak aurrera jarrai dezake proba berriak eginez (hori komenigarriena litzateke; izan ere, eskubideak gauzatzekoan udaleko erroldan baja emateak garrantzi handia dauka) eta txosten juridikoa eginez.

Ondoren, udalak erroldan ofizioz baja emateko proposamena Erroldatze Kontseiluari bidali behar dio. Erroldatze Kontseiluaren aldeko txostena derrigorrezkoa izateaz gain, loteslea da. Txosten hori herritarren eskubideen bermea da erroldatik kentzeari dagokionez; izan ere, soilik Erroldatze Kontseiluaren ebazpena eta gero eman daiteke udaleko erroldan ofizioz baja emateko ebazpena.

Sestaoko Udalak ez du bete ofizioz baja emateko ezarritako prozedura. 2010eko martxoaren 10ean Sestaoko Udaltzaingoak txosten bat egin zuen eta bertan jaso da familia hori ez dela etxebizitza horretan bizi orain dela sei hilabete baino gehiago (etxebizitza horretatik irtenarazi zituzten). Horrez gain, bidalitako informazioari jarraiki, 2010eko maiatzaren 21ean BAO n iragarkia argitaratu zen eta iragarkia argitaratu zenetik zenbatzen hasita hamabost eguneko epea eman zen erroldan baja emateko proposamenaren inguruan alegazioak aurkezteko. Kontua da maiatzaren 28an familia horri baja ematea ebatzi zuela atzeraeginezko ondorioekin. Udalak ez zuen ofizioz baja emateko prozedura bete, beste kontua batzuen artean, ofizioz baja emateko ez baitzuen itxaron alegazioen izapidea egiteko eman ziren hamabost egunak bete arte eta jakinarazpena zuzenean egiteko saiakerarik ez da jaso. Horrez gain, Erroldatze Kontseiluak ez zuen aldeko txostenik eman eta txosten hori udalak erroldan baja ematea ebatzi eta gero eman zen.

3. 2010eko maiatzaren 5eko alkatetza dekretuak udaleko erroldan atzeraeginezko ondorioekin baja ematea ebatzi zuen. Erroldan izena ematea administrazio egintza irmoa da, ez da akats materialen edo egitezko akatsen zuzenketa. Alkateak ezin ditu eskubideak aitortzen dituzten administrazio egintza irmoak balio gabetu legez ezarritako prozedura bete gabe.

AJAPELen 57.3. artikulua egintzei atzeraeginezko eraginkortasuna emateko aukera xedatzen du aldeko ondorioak dituenen: *"Salbuespen gisa,*



atzeraeragina eman dakieke egintzei, deuseztatutako egintzen ordezkioak direnean, eta interesdunari ondorio mesedegarriak dakarzkiotenean ere bai; beti ere, batetik, egintzak eraginkortasuna izateko jarri den data berrian egitatezko baldintzak jadanik existitzen baziren, eta, bestetik, eraginkortasunak kalterik ekartzen ez badie beste inoren eskubideei edo bidezko interesei”.

Kasu honetan, udaleko erroldan baja ematea erabaki da eta atzeraeginezko ondorioak aplikatu dira 2008ko azaroaren 1etik aurrera. Ebazpen horrek erroldan izena ematea bezalako administrazio egintza irmoa ordezkutzen du. Erroldan baja emateak familia horren interesei kalte egiten die, hortaz, ezin du atzeraeginezko ondoriorik eduki. Erroldan izena ematea bezalako administrazio egintza bat bertan behera uzteko edo baliorik eza aitortzeko, Sestaoko Udalak AJAPELen 102. artikuluetan eta hurrengoetan ezarritako legezko prozedura bete behar du.

4. Udalak Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailari 2010eko maiatzaren 5eko ebazpena aurkeztu dio eta argudiatu du familia horrek ez dituela betetzen Sestaon alokairuko babes ofizialeko etxebizitza bat esleitzeko beharrezkoak diren baldintzak, ez baitu erroldaren betekizuna betetzen. Arazoa da esleipen hori bertan behera gelditu dela, beraz, familia horri ez zaio etxebizitzarik eman eta gainontzeko familiek euren etxebizitzaz ari dira gozatzen 2010eko ekainetik. Jarduera horrek beste kexa espediente bat eragin du (60/2011/34).
5. Erroldan izena emateak ez dauka zerikusirik honako eztabaida juridiko hauekin: pertsonak zer tituluren arabera bizi diren etxebizitza batean edo hirigintzako plangintzako arauen edo esparru publikoaren erabilera zuzentzen duten arauen betetzea. Erroldatzea udalerrian benetan bizitzearekin lotuta dago. Udalak, datuen egiazkotasuna frogatzeko ahalmena gauzatzen duenean edo erroldatzeak eguneratuta mantentzeko beharrezkoak diren jarduerak eta eragiketak egiten dituenean, ez du ondoren legez kontrakoa edo ilegala izan daitekeen inolako jarduerarik baliozkotzen. Udal errolda eguneratzeko udalantzako argibide teknikoak ezartzen dituen 1997ko uztailaren 4ko ebazpeneko 3. Instrukzioan, Estatistikako Institutu Nazionaleko lehendakariak eta Lurralde Lankidetzako zuzendari nagusiak emandako horretan, udalen ahalmenaren norainokoa argitzen da:

“El Padrón es el registro administrativo que pretende reflejar el domicilio donde residen las personas que viven en España. Su objetivo, es por tanto, dejar constancia de un hecho, por lo que, en principio, no debe resultar distorsionado ni por los derechos que puedan o no corresponde al vecino para residir en ese domicilio, ni por los derechos que podrían derivarse de la expedición de una certificación acreditativa de aquel hecho.



La norma fundamental que debe presidir la actuación municipal de gestión del Padrón es la contenida en el artículo 17.2 de la Ley de Bases de Régimen Local:

Realizarán las actuaciones y operaciones necesarias para mantener actualizados sus Padrones de modo que los datos contenidos en éstos concuerden con la realidad.

Por ello, las facultades atribuidas al Ayuntamiento en el artículo 59.2 del Reglamento de Población y Demarcación Territorial de las Entidades Locales para exigir la aportación de documentos a sus vecinos tiene como única finalidad comprobar la veracidad de los datos consignados, como textualmente señala el propio artículo. En consecuencia, tan pronto como el gestor municipal adquiera la convicción de que los datos que constan en la inscripción patronal se ajustan a la realidad, deja de estar facultado para pedir al vecino ulteriores justificaciones que acrediten aquel hecho. Y, en concreto, la posibilidad de que el Ayuntamiento solicite del vecino el título que legitime la ocupación de la vivienda (art. 59.2 del Reglamento), no atribuye a las administraciones locales ninguna competencia para juzgar cuestiones de propiedad, de arrendamiento urbanos o, en general, de naturaleza jurídico-privada, sino que tiene por única finalidad servir de elemento de prueba para acreditar que, efectivamente, el vecino habita en el domicilio que ha indicado.

Este título puede ser una escritura de propiedad o un contrato de arrendamiento, pero también un contrato de suministro de un servicio de la vivienda (agua, gas, electricidad, teléfono, etc.) o incluso, no existir en absoluto (caso de la ocupación sin título de una propiedad ajena, sea pública o privada. En este último supuesto, el gestor municipal debería comprobar por otros medios (Informe de la Policía Local, inspección del propio servicio, etc.) que realmente el vecino habita en ese domicilio, y en caso afirmativo inscribirlo en el Padrón, con completa independencia de que el legítimo propietario ejercite sus derechos ante las autoridades o Tribunales competentes, que nunca serán los gestores del Padrón.

La facultad municipal de comprobación de los documentos que acrediten otros datos del empadronamiento (número del documento nacional de identidad, titulación escolar, etc.) deberá ejercitarse conforme al mismo criterio de exigir su aportación en la medida en que sea necesaria para adquirir la convicción de la veracidad de los datos consignados”.

Familia hori Sestaon bizi izan da etxebizitza okupatzeko titulua alde batera utzita.

Alkateak egindako salaketa, dokumentazioa faltsutzearen ingurukoa, artxibatu egin zen gertakari horiek ez zirelako delitua eragin zutenak; izan ere, delitu



mota horretarako ezarritako alde zuzenak izena emateko epea gainditu zen. Familiak berriro adierazi du alokairuko kontratua euren ustez etxebizitzako jabea zenarekin sinatu zutela. Izenpetutako tituluaren baliozkotasuna alde batera utzita, familiak 2008. eta 2009. urteetan zehar Sestaon bizi izana aintzat hartu beharreko kontua da, udaleko erroldan izena emateko duten eskubidean ikusi dugun moduan.

Udalak daki huste judiziala eta gero familia hori Sestaon bizi izan dela 2010. eta 2011. urteetan zehar senideen etxeetan edo azpietxebizitza egoeran, bai eta adingabeak ikastetxera doazela ere.

- 6.- Hona hemen datu garrantzitsu bat: 2010eko otsailaren 2an familia horrek Sestaoko Udalari jakinarazi zion ez zeukala etxebizitzarik eta Sestaon kokatutako babestutako etxebizitza bat esleitzeko zain zeudela erroldan mantentze aldera.

Aplikagarria den araudiak udalerrri batean bizi diren baina etxebizitzarik ez daukaten pertsonen erroldatzea xedatzen du, Biztanleria eta Lurralde Mugaketari buruzko Araudiaren 53.3. artikuluan: "Udalerrian bizi arren, bertan etxebizitzarik ez duten pertsonen udal erroldan izena ematea soilik burutu ahalko da pertsona hori bizi den eremu geografikoan eskumena duten gizarte zerbitzuei egoera horren berri eman eta gero". Sestaoko Udalak legearen babesa zuen 2010eko otsailaren 2ko eskaera onartzeko.

Aurretik aipatutako 1997ko uztailaren 4ko ebazpenaren 4. Instrukzioak zera ezarri du:

" 4. Empadronamiento de marginados

Como se ha indicado en la norma anterior, el Padrón debe reflejar el domicilio donde realmente vive cada vecino del municipio. Siempre que se produzca esa realidad debe hacerse constar en el Padrón. Y de la misma manera que la inscripción padronal es completamente independiente de las controversias jurídico-privadas sobre la titularidad de la vivienda, lo es también de las circunstancias físicas, higiénico-sanitarias o de otra índole que afecten al domicilio.

En consecuencia, las infraviviendas (chabolas, caravanas, cuevas, etc., e incluso ausencia total de techo) pueden y deben figurar como domicilios válidos en el Padrón, ya que la realidad es en ocasiones así. Las situaciones más extremas pueden plantear la duda sobre la procedencia o no de su constancia en el Padrón municipal. El criterio que debe presidir esta decisión viene determinado por la posibilidad o imposibilidad de dirigir al empadronado una comunicación al domicilio que figure en su inscripción. En



el caso de que sea razonable esperar que esa comunicación llegue a conocimiento del destinatario, se le debe empadronar en esa dirección.

La correcta aplicación de este criterio determina, por un lado, que se deba aceptar como domicilio cualquier dirección donde efectivamente vivan los vecinos, y, por otro, que pueda y deba recurrirse a una dirección ficticia en los supuestos en que una persona que carece de techo reside habitualmente en el municipio y sea conocida de los Servicios Sociales correspondientes.

Las condiciones que deberían cumplirse para este tipo de empadronamiento son las siguientes:

- Que los Servicios Sociales estén integrados en la estructura orgánica de alguna Administración pública.*
- Que los responsables de estos Servicios informen sobre la habitualidad de la residencia en el municipio del vecino que se pretende empadronar.*
- Que los Servicios Sociales indiquen la dirección que debe figurar en la inscripción padronal, y se comprometan a intentar la práctica de la notificación cuando se reciba en esa dirección una comunicación procedente de alguna Administración pública.*

En estas condiciones, la dirección del empadronamiento será la que señalen los Servicios Sociales: La dirección del propio servicio, la del albergue municipal, la del punto geográfico concreto donde ese vecino suela pernoctar, etc. Evidentemente, para practicar este tipo de inscripción no es necesario garantizar que la notificación llegará a su destinatario, sino simplemente que es razonable esperar que en un plazo prudencial se le podrá hacer llegar. Como ejemplo orientativo se puede imaginar el supuesto de una notificación enviada por la Oficina del Censo Electoral. La circunstancia de que una persona carezca de techo no debe privarle de su derecho de sufragio, para lo cual es requisito imprescindible que esté inscrita en el Padrón municipal. Si los Servicios Sociales del municipio consideran razonable poder hacerle llegar la tarjeta electoral, se debe inscribir en el Padrón a ese vecino bien en la dirección donde se espera que él reciba directamente la notificación, o bien en la dirección donde los Servicios Sociales la reciban para intentar transmitírsela al empadronado. Y, naturalmente, cuantas referencias se hacen a los Servicios Sociales son directamente aplicables a cualquier otro Servicio municipal que pudiera cumplir este mismo cometido.”

Sestaoko Udalak ez zion erantzun araudi hori aplikatuz erroldatzearen inguruan familia horrek egindako eskaerari eta ez zuen jardun gizarte larrialdiko egoerei aurre egiteko dituen ahalmenak betetz, etxebizitzarik ez daukan eta 4 adingabe barne hartzen dituen familia den arren.



Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

15/2011 GOMENDIOA, ekainaren 6koa, Sestaoko Udalari egina

2010eko maiatzaren 5eko ebazpena baliogabetu dezan. Ebazpen horren bitartez, familia horri udaleko erroldan baja eman zaio atzeraeginezko ondorioekin.

Ondorioz, familia hori udaleko erroldan mantendu dezan udalerrian benetan bizi izan dela frogatu duen denboraldian zehar, baita etxebizitzarik eduki ez duen bitartean ere. Horrez gain, Biztanleria eta Lurralde Mugaketari buruzko Araudian eta udalei errolda eguneratzeko jarraibide teknikoak ezarri dituen Estatistika Institutu Nazionaleko lehendakariaren eta Lurralde Lankidetzako zuzendari nagusiaren 1997. uztailaren 4ko ebazpenaren 3. Instrukzioan xedatutako ahalmenak erabili ditzan.

Albait lasterren Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailarekin harremanetan jar dadila familia horrek erroldatzeri buruzko baldintza betetzen duela jakinarazte aldera, esleitu dioten babes ofizialeko etxebizitza berehala eman diezaioten.

